

ADITZAK

Animalia ornodunak deskribatzeko IZAN eta UKAN aditzak erabiliko ditugu. Beti 3.pertsonan, batzuetan singularrean eta besteetan pluralean. Ikusi adibidea:

3.pertsona	IZAN		UKAN	
SINGULARRA				
HURA/BERA	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
Adibidea: Txakurra	Txakurraren buztana luzea da	Txakurraren begiak handiak dira	Txakurrak buztan luzea du	Txakurrak begi handiak ditu
PLURALA				
HAIEK/BERAIEK	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
Adibidea: Txakurrak	Txakurren buztana luzea da	Txakurren begiak handiak dira	Txakurrek buztan luzea dute	Txakurrek begi handiak dituzte

Beraz:

Erabiliko ditugun aditzak IZAN aditzarekin: **da** eta **dira**

Erabiliko ditugun aditzak UKAN aditzarekin: **du, ditu, dute** eta **dituzte**

Osatu ondorengo esaldiak aditz egokiak erabiliz:

- Txakurrak lau hanka _____.
- Bibiparoak amaren sabeletik jaiotzen _____.
- Arrainek arnasa hartzeko zakatzak _____.
- Kokodriloeak hagin zorrotzak _____.
- Arranoek ikusmen ona _____.
- Igelek larruazal biluzia _____.
- Sugeak bi puntatako mingaina _____.
- Balea ugaztuna _____.
- Arrautzetatik jaiotzen direnak obiparoak _____.
- Haragijaleek animaliak jaten _____.
- Animaliak eta landareak jaten dituzten animaliak orojaleak _____.
- Hegala, arrainaren gorputzeko atal bat _____.
- Txantxangorriak hegan egiteko hegoak _____.
- Dortokak oso motelak _____.
- Narrastiek eta arrainek gorputzean ezkatak _____.
- Katua oso trebea _____.
- Pinguinoak hegan egiten ez duten hegaztiak _____.